

Mungiako saltokiek bat egin dute “Otsailaren 11 erakusleihoak” ekimenarekin

-Emakume eta Neska Zientzialariaren Nazioarteko eguna ospatzeko, Mungiako Udalak eta Elhuyarrek sustatutako “Otsailaren 11 erakusleihoak” ekimenean parte hartuko dute Mungiako saltokiek.

-Mungiako 12 saltokik beren erakusleioa apaindu dute ikertzaile baten omenez datorren otsailaren 13ra arte

Mungia, 2023ko otsailaren 7an. Mungiako Udalak eta Elhuyarrek “Otsailaren 11 erakusleihoak” egitasmoa jarri dute martxan herriko 30 dendatan, emakumeek zientziaren eta teknologiaren arloan egin duten lana ezagutarazteko. Bizilabe gazteentzako zientzia- eta teknologia-ekintzak egiteko aisialdi-eskaintzaren barruan kokatzen da ekimen hau eta, guztira, Bilbo, Abanto-Zierbena, Barakaldo, Mungia, Elgoibar, Deba, Beasain eta Donostiako 218 saltokik hartuko dute parte.

Horrela, otsailaren 11an ospatuko den Emakume eta Neska Zientzialarien Nazioarteko Egunarekin batera, erakusleihoak apaindu dituzte Mungiako 12 saltokik. Zientzialariarekin lotutako ilustrazioak eta informazioa biltzen duten horma-irudiak jarri dituzte dendan, eta haren ikerketan inspiratuta apaindu dute dendako erakusleioa. Hala, beraz, emakume zientzialarien bizitzaren eta lanaren dibulgatzaile bihurtu dira dendariak, eta emakumeek zientziari egin dioten ekarpena ikusarazten laguntzen dute. Aurten, GINKANA batean parte hartzeko aukera ere dago. *Actionbound* aplikazioa jaitziz, dendaz denda, 12 emakumeen kartelak bilatu eta bertako QRak eskaneatuta, emakumeen inguruko galderei erantzun behar zaie.

Saltokiei dagokionez, hauek dira Mungian “Otsailaren 11 erakusleihoak” ekimenean parte hartuko dutenen zerrenda:

- FARMACIA CARLOS AGUIRRE MORAN
- GOLZARRI BOTIKA, S.L.
- IKIGAI
- PEPITA
- CRISTINA PELUQUERIA
- MARSALA ARTISAUTZA
- HERBORISTERÍA LEIZURI
- GARATU IKASGELA
- REMIT
- RYELMA
- PUK&CO
- BIOLETA MUNDUAN

Emakume ikertzaile horien **ilustrazioak** [Bizilaberen webgunean](#) eskegiko dira, beren lanari buruzko **informazioarekin** batera; informazio horretan, ikertzaileen bizitza, ibilbidea eta aurkikuntzak biltzen dira. Aurtengo edizioan “Otsailaren 11 erakuslehoak” ekimenean omenaldia jaso duten emakumezko zientzialariak honako hauek dira:

Mari Luz Esteban Galarza (Pedrosa de Valdeporres, Burgos, 1959). Medikua eta antropologoa

Maryam Mirzajani (Teherán, Iran, 1977-2017). Matematikaria

Estibaliz Apellaniz Ingunza (Bilbo, Bizkaia, 1954). Geologoa

Emma Roca Rodríguez (Bartzelona, Katalunia, 1973-2021). Biokimikaria

Dorcas Muthoni (Nyeri, Kenya, 1979). Ingeniari informatikoa

Homira May Rezai (Jaghori, Afganistan, 1993). Medikua

Melissa Cristina Márquez Villalobos (San Juan, Puerto Rico, 1993). Itsas biologoa

Amaia Arranz Otaegui (Tolosa, Gipuzkoa, 1987). Historialaria eta arkeobotanikaria

Sally Ride (Encino, AEB, 1952-2012). NASAko fisikaria, dibulgatzailea eta astronauta

Maddi Astigarraga Bergara (Deba, Gipuzkoa, 1997). Ingeniari biomedikoa eta ilustratzaile zientifikoa

Ainara Sangroniz Agudo (Elgeta, Gipuzkoa, 1991). Kimikaria

Katalin Karikó (Szeged, Hungaria, 1955). Biokimikaria

Informazio gehiago nahi izanez gero:

Mungia Udala: Mikel Huerta Cayón

komunikazioa@mungia.eus

946 74 12 16 / 697 527 142

Elhuyar: Irune Bengoetxea Lanberri

i.bengoetxea@elhuyar.eus

943 363 040 | luzp.:301

688 676 151